

# **EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK**



## **0. atala: Aurkezpena**

### **1.atala: Gure Komunitateen informazioa**

- Estibalitzeko konpromisoari lotutako agiria eta Komunitateentzako lan-proposamena /Comunicado, fruto del compromiso de Estibaliz y propuesta de trabajo para las comunidades
- Elkartze-bilerarako lan-proposamena / Propuesta de trabajo para el Encuentro de Comunidades
- Koordinakundearen akta / Acta de la reunión de Coordinadora

### **2. atala: Beste Komunitateen ahotsa**

- Estatuko Topaketan berri / Encuentros estatales (Pilas – Sevilla)

### **3. atala: Elizan eta munduan**

### **4. atala: Esatekoak**



Kristau  
Elkarte  
Herritarrak

2002ko  
otsaila

1

Buletina

## **O. ATALA: AURKEZPENA / ECHAR A ANDAR**

Zenbaitetan esana dugu Komunitateen arteko harremanak areagotu behar ditugula. Asanbladetan, Topaketetan, Ospakizunetan, elkarren ondoan izandako guztietan, beharizan bera berritu dugu.

Ea ba! Komunikazio zuzena, elkarrekin lan eta otoitz egitea, egotea, hitz egitea... ditugu aberatsenak, noski. Hala ere, honako hau izan daiteke tresna baliagarria elkarren berri izateko, bizi duguna, jasotzen duguna, zabaldu nahi duguna, eta abar, eta abar, elkarri jakinarazteko, elkarrekin sentitzeko eta bizitzeko.

Urte batzutan lotan izan ba dugu gure Buletina, "Kristau Elkarten Agiria" deitzen genuena, esnarazteko modu arina eta merkea eskaintzen digu gaur teknologiak.

Aprobetxa dezagun, bada! Nahi dugun maiztasun eta edukiekin, denon artean osatuko baitugu.

Komunitate bakoitzeko partaide batek postari elektronikoaren lana hartu beharko du Buletinaren koordinatzaileari ([kepana@euskalnet.net](mailto:kepana@euskalnet.net)) bere emariak bidaltzeko eta bide beretik jasoko du besteen berri. Ez dugu paperean argitaratuko, postari bakoitzak pasako die bere kideei informazioa, prozesua erraztuz eta merkatuz.

Hara doaz gure proposamenak, zeuek zehatz ditzazuen! Bi hilean behin osatzekoa? Egitura eta atal horiekin? Tresna eta modua? ...?

Son muchas las veces en que nos hemos dicho que tendríamos que impulsarla comunicación entre las Comunidades. Cuantas veces nos encontramos, echamos en falta una comunicación más fluida, ampliar las oportunidades de saber del resto de las Comunidades.

Sin duda, la mejor comunicación es la cercanía, vernos, trabajar y rezar juntos, charlar, cantar, reír... Pero no podemos despreciar esta posibilidad que nos brinda la tecnología para acercarnos y decirnos lo que hacemos, lo que sentimos, lo que queremos contarnos...

Para ello hemos recuperado el que se llamó "Boletín de las Comunidades Cristianas", con su mismo anagrama de presentación, y para que sea nuevamente nuestro órgano de encuentro durante el año.

¿Cuántos haremos? Tantos como cuantos queramos. Lo haremos entre todos y todas.

Basta con que cada Comunidad nombre su coordinador o cartero electrónico, para enviar al correo del Boletín ([kepana@euskalnet.net](mailto:kepana@euskalnet.net)) sus aportaciones y recibir de éste las de todas la Comunidades que hayan participado en cada número. No gastaremos papel y cada Comunidad verá el modo de extenderlo entre sus miembros.

Este primer número es totalmente provisional, a la espera de vuestras propuestas:

¿Frecuencia bimensual? ¿Apartados y estructura...? ¿Sistema apropiado? ...?

### ***Atalen muina:***

#### ***1. atala. Gure Komunitateen informazioa / La información de nuestras Comunidades***

- Komunitate bakoitzak jakinarazten du bere momentuko lana, hausnarketa, eztabaidagaiak...

Postariak, batzarra eta gero, bizpahiru lerrotan jaso dezake egindakoa. Honez gain

Koordinakundetik egiten diren proposamenak eta adierazpenak.

- En este apartado cada Comunidad nos darán a conocer sus trabajos y reflexiones, cuestiones...

Basta que el/la corresponsal recoja en tres o cuatro líneas su aportación. Igualmente se recogerán las aportaciones de la Coordinadora.

#### ***2. atala: Beste Komunitateen ahotsa / Una ventana al resto de las Comunidades***

Estatuko, Europako Komunitateen berri eta lotura izateko aukera dugu hau. Koordinakundeetako bileretan eta Topaketen informazioa zabaltzeko lekua dugu hau.

Este apartado será la oportunidad de asomarnos a la vida de las Comunidades del estado, de Europa... a través de las reuniones de Coordinadora, de los Encuentros, etc.

#### ***3. atala: Elizan eta munduan / Miramos a la Iglesia y al universo***

Mila bide daukagu honen berri izateko, baina denok ez dugu dena irakurtzen; ezer zabaldu nahi ba duzu..., hau da txokoa!

Todo lo que se publica no lo vamos a recoger, pero aquello que os parezca importante y con pocas posibilidades de ser conocido..., ¡envíalo!

**4. atala: *Esatekoak / Sin olvidarnos de...***

Bilerak, deialdiak, gonbiteak, albisteak, liburu eta artikuluen berri..., nahi duzuna!

Convocatorias, reuniones, invitaciones, noticias, reseñas de libros o artículos... un buzón abierto.

## ***1. atala: Gure Komunitateen informazioa***

### ***Zabaltzeko agiria, Estibalitzeko konpromisoari jarraituz***

#### **Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrek (KEH) Euskal Elizari**

Euskal Herriko KEHren partaide garen kristauok, bai eta Euskal Elizbarrutien kideak, gure gizarteak jasaten duen arazo larrienetako batekin kezkatuak – **preso sozial, politiko eta etorkinen deuseztapenerako prozesua** - hausnarketa egitera deitu nahi dugu, laburpen hau luzatuz, zera sinisten baitugu, Jesusen mezua, “*Jaunaren izpiritua nire gainean dago, berak nau bidali gatibuei askatasuna eta behartsuei berriona adieraztera, ... eta zapalduak askatzera*” (Lk.4, 18), ez dela gauzatuko gure eliza eta herrietan marjinarik diren preso guzti horien eskubideen errespetua eta askatasuna lortu arte.

Kristau gehienok, zintzotasunez aitortu behar dugu, presoen arazoaren aurrean jarrera isila eta hotza dugula, espetxeratuen giza eta legezko eskubideei egiten zaien zapalkuntza edo eta ukatze prozesuari entzungor.

#### **Preso sozial eta politikoen egoera**

Ukatzen zaizkien oinarrizko eskubideak azpimarratu baino lehen, onartu beharra dugu beraienetakoa hainbat, kartzelatu baino lehen, komisarietan egonak direla, non torturatuak izan diren, bai eta honen ondorioz eta horrela lortutako deklarazioak erabili dituzten, eta epaileek froga nahikotzat baloratu, espetxera bidaltzeko

- osasunerako eskubidea guztiz murriztuta dute, ez dago behar den osasun-laguntza, ez da presoen osasun-historiala jasotzen, eta ondorioz hainbat preso hil da beraren gaixotasunak ez zuelako laguntzarik izan, sendagarria zen unean

- gaixotasun sendaezina dutenek kartzelatik kanpo egon beharko lukete legez, baina ez da betetzen. Beste zenbaitek, kondenaren hiru laurdena bete ondoren, kalean izan beharko lirateke; eskubide hau, berriz ere, ukatzen zaie.

- ez da errespetatzen kondena beraien bizilekuaren hurbil den espetxean betetzeko eskubidea, beraienzat eta senitarteentzako ondorio latzak gainezarriz

- kulturarako eskubidea gutxitzen da, lehen hezkuntzarakoa soilik bermatzen baita; ez dago lanbide hezkuntzarako aukerarik eta unibertsitaterakoa oso mugatua da gaur egun.

- preso gazteenen egoera larriagoa gertatzen ari da, berauen eskubideen urratzea areagotzen ari baita eta ezarri nahi zaizkien zigorrak bat ere proportziorik ez baitute egotzitako delituekin, legelari kualifikatuen iritzian.

#### **Etorkin presoen egoera**

Ez dute defentsarako eskubidea, eta larriagoa dena, beraien jatorrizko herrietara izan daitezke bidaliak isilpean, abokatuek eta jendeak ezer jakin gabe.

Berauen atxilotzea, zenbait kasutan, mugarik gabe luza daiteke, bizilekurik ez dutelako, ez eta holakorik lortzeko aukera erreala zein legala ere.

#### **Pertsonen deuseztapena**

Bukatzeko, esan beharra dago ez dutela defentsa juridikorako eskubidea, epaiketa burutu eta sententzia eman ostean, abokatuaren laguntza bukatzen baita; laguntza legala, berriz, ezinbestekoa da presoek kartzelan ematen duen denbora horretan. Babes eza honen baldintzek, jasotzen dituzten tratu txarrak eta indarrean diren legeen abusuzko eta nahikeriazko ezarpena gehiturik, preso horien pertsona-deuseztatze prozesua eragiten dute nabarmenki.

#### **Kristauen konpromisoa**

Presoen egoera eta beraien eskubideen aldeko borroka, konpromisorako deiak dira kristau guztiontzat, garrasiak geure axolagabetasunari, Jesusen mezuarekin kontraesanean ondoan dugun

egoera baten frogak baitira. Presoek beraien sufrimendu eta aldarrikapenekin ebanjelizatzen gaituzte eta gizarte eta herri berria, Jainkoaren erresuma, eraikitza deitzen gaituzte honela.

Ondorioz, konpromiso zehatzak hartu beharko ditugu egoera hau gizarteari ezagutzera emateko eta justiziaz zuzentzeko, Jesusengandik jasotako egitekoa gauza dezagun: *“bilatu lehendabizi Jainkoaren erregetza eta beronen zuzentasuna” (Mt. 6, 33).*

### ***Documento para difundir, cumpliendo el compromiso tomado en Estibalitz***

#### **Las Comunidades Cristianas Populares (CCP) de Euskal Herria a la Iglesia vasca**

Los cristianos pertenecientes a las CCP de Euskal Herria, miembros de nuestras respectivas iglesias diocesanas, preocupados por uno de los problemas más graves que padece nuestra sociedad – **el proceso de aniquilación de la vida de los presos sociales, políticos e inmigrantes** – hemos hecho la siguiente reflexión, cuyo resumen presentamos en este documento, porque creemos que el mensaje de Jesús, *“El espíritu del Señor está sobre mí, me ha ungido para dar la Buena Nueva a los pobres, pregonar la libertad de los presos ... poner en libertad a los oprimidos” (Luc. 4,18)*, no llegará a concretarse hasta que no se consiga el respeto de los derechos y la libertad de todos estos presos, que se encuentran olvidados y marginados en nuestra sociedad y también en la Iglesia.

Tenemos que reconocer con sinceridad que una gran mayoría asistimos impasibles, por nuestro silencio o por nuestra ineficacia, a este proceso de conculcación en unos casos, o de no reconocimiento en otros, de los derechos humanos y legales de todas estas personas encarceladas.

#### **Situación de los presos sociales y políticos**

Al señalar los derechos fundamentales que les son negados, hay que denunciar, en primer lugar que muchos de ellos, antes de ser encarcelados, han pasado por comisaría donde han sido torturados. Muchas declaraciones así obtenidas han sido prueba de cargo suficiente para el encarcelamiento posterior.

- el derecho a la salud está muy mermado, pues no cuentan con la asistencia médica debida, ni siquiera se archiva su historial médico; así muchos han muerto por no ser atendidos cuando sus enfermedades eran curables.
- en los casos de enfermedad incurable tendrían que ser excarcelados y no lo son. Otros han cumplido ya las tres cuartas partes de la condena por lo que deberían ser puestos en libertad y también se les niega este derecho.
- el derecho a cumplir su condena en el lugar próximo a su residencia tampoco se respeta, con las consecuencias derivadas para ellos y sus familiares.
- el derecho a la cultura también está disminuido, pues sólo tienen garantizado el derecho a la enseñanza primaria, ya que no hay posibilidad de enseñanza profesional y el acceso a la universidad actualmente está muy restringido.
- la situación de los presos más jóvenes se agrava porque, en opinión de juristas cualificados, se están dañando sus derechos y las penas que se les quieren aplicar son totalmente desproporcionadas a los delitos que se les imputan.

#### **Situación de los presos inmigrantes**

No tienen derecho a la defensa, con el agravante de que pueden ser repatriados a sus lugares de origen sin que la opinión pública tenga conocimiento de ello.

Su detención puede prolongarse sólo porque, en muchos casos, no tienen un hogar ni la posibilidad de adquirirlo real y jurídicamente.

#### **Aniquilación de la persona**

Se puede decir, para terminar, que el derecho de la defensa jurídica no se contempla, pues una vez terminado el juicio y dictada sentencia, acaba la misión del abogado, cuando, en realidad,

durante la estancia del preso en la cárcel el apoyo jurídico de los abogados sigue siendo imprescindible. Estas condiciones de indefensión, unidas al trato recibido y a la aplicación incorrecta y abusiva de la legislación vigente, contribuyen notablemente al proceso de aniquilación personal del preso antes mencionado.

### **Compromiso cristiano**

La situación de los presos y la lucha por sus derechos son una llamada de atención para los cristianos. Esta realidad de injusticia se opone al mensaje liberador de Jesús que anunciamos. Desde su sufrimiento y sus reivindicaciones, los presos y presas nos están evangelizando y nos están llamando a la construcción de una sociedad y un pueblo nuevo, el reino de Dios. En consecuencia, creemos que debemos comprometernos en que su situación sea conocida por toda la sociedad y subsanada en justicia, haciendo real el mandato de Jesús: “*buscad el reino de Dios y su justicia*” (Mt. 6, 33).

### **Proposamenak eta iradokizunak gure konpromisoa gauzatzeko**

- Euskal Elizak – parrokia zein elizbarrutiko erakundeak – ezagutu behar ditu, gure ustez, presoak eta berauen familiak; honetarako, parrokia bakoitzean, preso, senide eta beraien beharrezan zerrenda prestatu beharko genuke, bai eta aldiro gaurkotu ere.
- Ematen ari den laguntza-erantzuna, oso garrantzitsua izanik, zabaldu behar da, gure ustez, bestelako oinarritzko atalean, pertsona eta Jainkoaren seme-alabei dagozkien giza-eskubideen defentsan, hain zuzen.
- Presoen Egunaren ezarpena, parrokia guztietan, proposatu nahi dugu, zenbait kristauk ez baitugu preso mota desberdinen arazoan larritasuna ezagutzen.

Presoak izatea berak, sozialak, politikoak zein etorkinak direlarik, gure herrian den justizia-arazoa adierazten du, beronek daraman zerarekin: ulertezina egiten zaigu bakea eraikitzerako bidean garela esatea, presoan eskubideen onarpena eta betebeharra ukatu edo ahaztu egiten dugun bitartean. Hau dela eta urrats garrantzitsua deritzogu eskubide horien aintzat hartzeko lanari, herri honentzat eta zuzeneko bakean denok nahi dugun elkarbizitzaren bidean.

*Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrak*

Zuen erantzun eta iradokizunak espero ditugu. Harremanetarako gaituzue:

(Elizbarrutiko helbide bat eman: Anparo, Balentxi, Mikel...)

### **Propuestas y sugerencias para hacer realidad nuestro compromiso**

- Nos parece necesario que la Iglesia vasca – todas las parroquias y todos los cuadros de nuestra diócesis – conozcan a todos los presos y familiares, para lo que sería conveniente elaborar y actualizar periódicamente una lista de los presos que existen en cada parroquia, de sus familias y de sus necesidades.
- la implicación asistencial que ya se está realizando, sin dejar de parecernos muy importante, creemos que debería extenderse también a otro aspecto fundamental, el de la defensa de los derechos humanos que por ser personas e hijos de dios les corresponden
- la institucionalización del día del preso en todas las parroquias es una acción concreta que proponemos, porque somos numerosos los fieles a los que nos falta una visión de la gravedad de sus problemas.

La existencia de los presos, tanto sociales como políticos e inmigrantes, denota un problema de justicia en nuestro pueblo con todas las connotaciones derivadas de ello, pues no se puede concebir que éste vaya avanzando en el camino hacia la paz, cuando ni siquiera se reconocen la existencia y la necesidad de cumplir los derechos de los presos, por lo que estamos convencidos de que esta

implicación a favor del reconocimiento de esos derechos va a ser un paso importante en la búsqueda de esa convivencia en una paz justa que tanto deseamos para este pueblo.

*Las Comunidades Cristianas Populares de Euskal Herria*

Esperamos vuestra respuesta y sugerencias. Podéis contactar con nosotros-as a través de: (Añadid una dirección correspondiente a la Diócesis: Amparo, Kepa, Balentxi, Mikel...)

*Aurreko hiru orriak Donostiako Komunitateak eginiko proposamen batetik datoz, Balentxiren bidez; Koordinakundetik, moldatu eta eztabaidatu ondoren, animatzen zaituztegu bakoitzak bere elizbarrutiko gotzain, eta parroketara, handienetara gutxienez, iritsarazi ditzan. Hurrengoak, berriz, Donostiakoek aurkezten dituzten era berean bidaltzen dizkizuegu, taldeetan eztabaida ditzazuen eta zuen ondorio, proposamen eta iradokizunak pasa ditzazuen.*

*Las tres páginas anteriores responden a una propuesta llegada a la Coordinadora desde la Comunidad de Donostia, vía Balentxi. Después de discutirla y remodelarla, os la enviamos y os animamos a hacerla llegar a los obispos y a las parroquias, al menos a las más importantes, cada grupo en su diócesis.*

*Las siguientes, en cambio, os las pasamos tal cual han sido presentadas, para que sean trabajadas en cada grupo y después paséis vuestras conclusiones y propuestas o sugerencias.*

## **EKINTZARAKO PROPOSAMENAK**

Joan den bileran, Artzain Onean egindakoa, eztabaidatu genuen beharrezko zela elizbarrutietako elkarteekin harremanak izatea, esate baterako ESPETXE PASTORALA, CARITAS eta PAESekin, eta aldi berean elkarte zibilekin ere bai, hots, SALHAKETA, SOS RACISMO, SENIDEAKekin, e.a. Beharrezkoa da datorren bilerarako ekartzea, zer emaitza izan dugun harreman hauetan.

KRISTAU ELKARTEEN IDAZKIAREN arabera elkarte hauekin izandako konpromisoak aztertu behar ditugu, honako hauek hurrengo proposamenak:

## **PRESO GUZTIEN ZERREDA**

Garrantzia dauka Elizak, ahalik eta baliabide gehien presoan alde erabil ditzan, baina jarraipen batekin. Jarraipen honen barruan, preso guztien eta beren familien beharkizun guztiak kontuan hartu behar ditu, izan ere, defentsarako behar juridikoak, ekonomikoak, osasunezkoak eta kulturalak, baina horretarako derrigorrez beharrezkoa da preso zerrenda bat egitea. Gauza ez da erreza, baina Elizak horretarako baliabide batzuk erabil ditzake:

- Espetxe Pastoralak, parrokoek eta Espetxe Pastoralaren talde guztiei, presoan egoerari buruzko informazioa eska diezaike.
- Espetxeetako kaperauek, presoan sarreraren eta irteeraren berri eman dezakete.
- Caritaseko gizarte asistenteek udaletxeetako eta espetxeetako gizarte asistenteen bidez, presoek buruzko informazioa lor dezakete.

## **PRESO EGUNA**

Sarritan pentsatzen dugu gure espiritualitatean, presoekiko kezka edo ardua, behin behineko gauza dela, eta sarritan bazterrean geratzen da. Ardua hau ordea Elizaren benetako espiritualitatean garrantzi handikoa da. Gaur onartzen dugu eliza pobreena dela, eta presoak pobrerik pobreenak direla. Baina honi buruz kontzientzia guti dugu, horregatik PRESO EGUNA egituratzea egoki izango litzake, ideia honetan sakontzeko.

Kontuan hartu behar dugu Elizbarruti batean, konkretuki Araban, dagoeneko antolatuta. Komeni izango litzateke ekitaldi hau gainerako beste elizbarrutietara zabaltzea.

Egun honetako osagarriak izan litezke:

- \*Preso etorkinen, politikoen eta sozialen egoera orokorraren informazioa ematea, aldi berean presoan parrokia bakoitzarena ere bai.



- \*Parrokiako elkarteek arazo honi buruz beren ikuspegia eman dezaten
- \*Preso baten senide batek, bere pentsaera ere eman dezake.
- \*Presoen aldeko diru bilketa egin liteke eta aldi berean, diru honen banaketa egiteko irizpideak ezarri.

## **PRESOEN ALDEKO AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO BULEGO BATEN SORMENA**

Preso baten bizitza beteta dago, hobeto esanda akats, hutsune, zapalketa juridikoetan murgilduta dago. Komunikabideek eta guk giza eskubideaz asko hitz egiten dugu baina bere errealitatea iraingarria da.

Hutsune hauetako askok, errez irtenbidea aurki dezake, baina, arazo hauek bideratzeko ez dago inor, eta horregatik, beren espetze zigorra aparte, erortzen zaie zigor gehiagorik. Adibide asko dugu, esate baterako, Espetze legedipean dagoen dena, hirugarren graduak zigor likidaziokoak, e.a (liquidación de condenas). Eta arazo hau, preso guztiek dute, bakoitzak bere bereizitasunekin.

Bulego honen kideak profesionalak izan behar dute, eta Caritasek ekonomikoki bere gain hartu behar du. Bere helburuetako bat presoekin ari diren beste elkarteekin (SALHAKETA, SOS RACISMO, SENIDEAK, GESTORAS PRO AMNISTA, PROYECTO HOMBRE, AGIPAD, D.E.E. e.a.) koordinatuta egon behar du.

Hau lehenengo urratsa izango da, hurrengoetan, kanpaina koordinatuetan parte hartzea izango da.

## **G.K.E. (ONG) KIN ETA ELKARTE ZIBILEKIN ELKARRIZKETARI BURUZ**

Hauekin elkarrizketa epe luzerako lana izango da baina oraindik oinarriak jarri behar ditugu, lan sakona eta koordinatua egiteko, elkarte guztien egiturak eta helburuak errespetatuz, lan koordinatua egin dezakegu. Egia esanez, presoekin eta presoen alde lanean ari diren elkarte asko badira ere errealitatez egin behar den lanarekin alderatuz, denok elkartuta lan gutxi egiten dugu. Horregatik denen artean plangintza bat egin dezakegu. Ondorioz oinarri batzuk jarri behar ditugu, elkarrizketari hasiera emateko. Elkarte hauekin elkarrizketaren ardatzak, hauek izan daitezke:

- Zuen elkartearen arabera, zeintzuk dira presoen arazorik larrienak?
- Elizan zer eskatuko zenioke ,presoei laguntza eman diezaien?
- Urtean behin presoen aldeko ekintza bat egin dezakegu elkarte guztiok?

## **EUSKALERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK**

## **PROPUESTAS PRÁCTICAS DE ACTUACIÓN**

En la reunión pasada del Buen Pastor, abordamos que era necesario empezar a tomar contactos con Asociaciones Diocesanas, como PASTORAL PENITENCIARIA, CARITAS Y PAES, igualmente con otros pertenecientes al ámbito civil, como SALHAKETA y SOS RACISMO. Creemos sería necesario para próximas reuniones dar cuenta de estos contactos.

Según el escrito de COMUNIDADES habría que abordar varios compromisos, entre otros:

## **LISTA DE TODOS LOS PRESOS.**

Es obvio e importante, que los recursos que pudieran movilizar las iglesias diocesanas fuesen en provecho de los presos a través de un seguimiento, que comprendería no sólo la solución de necesidades urgentes, sino una asistencia, seguimiento y acompañamiento al preso y sus familias y atender campos como el jurídico, el social, económico y cultural. Somos conscientes de la dificultad de este objetivo, pero se podrían proponer varias iniciativas:

## **LISTA DE PRESOS EMIGRANTES, SOCIALES Y POLÍTICOS**

- Que la Pastoral Penitenciaria urja a los párrocos y grupos de Pastoral Penitenciaria que den pasos para elaborar la lista.

- Que los capellanes de las prisiones informen de las altas y bajas de los presos.
- Que las Asistentas Sociales de Cáritas, obtengan información a través de la red de asistentas sociales de los ayuntamientos y de la prisión sobre la existencia y realidad de los presos.
- Etc.
- QUE se haga una colecta a favor de todos los presos y que se organicen criterios o por lo menos se expongan estos criterios sobre el reparto del dinero.

## **EL DÍA DEL PRESO**

Muchas veces tenemos la impresión de que en nuestra espiritualidad la atención a los presos, es coyuntural y sectorial, cuando en realidad es algo central en nuestra concepción de Iglesia, como Iglesia de los pobres. Sin embargo la realidad es que estamos muy poco concienciados para ello; pensamos que la institucionalización del DÍA DEL PRESO ayudaría a profundizar esta concepción.

Hay que tener en cuenta que en algunas Diócesis, en concreto en Araba, parece, han dado pasos en este sentido. Sería cuestión de que lo que se hace en una Diócesis se pudiera hacer a nivel de Euskalerría.

Como posibles ingredientes de ese día podrían ser:

- INFORMACION de la situación general de los presos emigrantes, políticos y sociales. Información sobre los presos concretos de cada parroquia.
- QUE ORGANIZACIONES PARROQUIALES den su visión sobre la situación de los presos.
- QUE ALGUN FAMILIAR DE PRESO EMIGRANTE, POLÍTICO Y SOCIAL, exponga su punto de vista.
- QUE se haga una colecta a favor de todos los presos y que se organicen criterios o por lo menos se expongan estos criterios sobre el reparto del dinero.

## **CREACION DE UN COMITE DE ASESORAMIENTO JURÍDICO.**

La vida del preso esta llena, mejor dicho esta inmersa, en toda clase de atropellos jurídicos. Los derechos de los presos, cuando hablamos se nos hace la boca agua, pero la realidad es deplorable.

Dentro de estos atropello, hay muchos que son subsanables jurídicamente, pero por falta de alguien que oriente a los presos, cae sobre ellos penas de falta de libertad sobreañadidas. Ejemplos de ello los tenemos en abundancia: todo lo referente al Reglamento Penitenciario, problemas de liquidación de condena, problemas de tercer grado, etc. Y esto se da en todos los presos, sociales y políticos, cada uno con sus características, pero extendidas en todos los ámbitos.

Este Comité, se compondría de Profesionales, estaría subvencionado por Cáritas y trataría de coordinarse con otras organizaciones civiles que hoy trabajan en este campo carcelario: SALHAKETA, SOS RACISMO, SENIDEAK, GESTORAS PRO AMNISTÍA, PROYECTO HOMBRE, AGIPAD, DEE, etc.

Esto sería un primer paso, para caminos posteriores, como creaciones de campañas en apoyos a los presos, etc.

## **SOBRE EL DIALOGO CON ONG. Y ASOCIACIONES CIVILES**

Esto sería todo un trabajo a largo plazo, pero que ya desde ahora, habría, que empezar poniendo las bases para hacer un trabajo serio y coordinado. Respetando las estructuras y objetivos de todas las organizaciones, sin embargo, algo se puede hacer coordinadamente. Pues la verdad sea dicha, que a pesar de que hay bastantes organizaciones que están realizando un trabajo serio con y por los presos, en realidad es muy poca cosa, en comparación con la magnitud del problema, por todo ello, sería interesante planificar algunos EJES de actuación en los contactos con estas asociaciones. En el dialogo que se podría entablar giraría sobre los temas siguientes:

- A juicio de estas organizaciones, ¿cuáles son los problemas más graves que tienen los presos.?
- A su juicio, ¿qué exigirían a las organizaciones de Iglesia de cara a colaborar en la problemática de los presos?
- ¿Se podría realizar alguna vez al año, alguna acción o campaña, mancomunada-mente todas las organizaciones a favor de los presos?

## **EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK**

*Nafarroako Komunitateek honako proposamena egin digute, uda baino lehenago egin nahi dugun Asanbladarako, segur aski, Eginon, izango dena.*

## **EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARREN ELKARTZE-BILERARAKO LAN PROPOSAMENA.**

### **GAIA:**

**"Globalizazioak kristau bizitzari eta ebanjelizazioari egiten dizkion interpelazioak eta erronkak"**

### **ELKARTZE-BILERA PRESTATZEKO AURRETIAZKO LAN-PLANA:**

- Gaia hainbat azpi-gaitan banatuta aztertzea proposatzen dugu:
- Elkarte bakoitzak azpi-gai bat aukeratu eta aztertuko du (egokitzen jotzen duen denbora eskainiz; kontuan izan behar da dagoeneko elkarte bakoitzak egina izango duela ikasturte honetarako lan plana).
- Azpi-gaiak hurrengoak izan daitezke:
  - a) "Globalizazioa, merkatu neoliberalaren erabatekotasuna eta Jainkoaren 'behin betikotasuna' ("Ez duzue nigandik aparte beste jainkorik izango", "Ezin duzue bi nagusiren morroi izan")
  - b) "Globalizazioa, txirotasuna, bazterketa eta anaitasun-bokazioa" ("Zer egin diozu zure anaiari?", "Hauetariko nire senide bati egin zeniona,...").
  - c) "Globalizazioa, kontsumo, dibertimendu nahiz bat-bateko atsegin kultura, eta adimenaren galera. Etendura zientzia-teknologiazko pentsamoldearen eta antropologia, etika, sinbolozko pentsamoldearen artean. ("Zertarako du inork mundu osoa eskuratzea bizia galtzen badu?").
  - d) "Globalizazioa eta 'historiaren helburua' askatasunaren erronkaren eta gu nor izatearen aurrean" ("Egin zaitezte lurraren jabe", "Ez zaitezte itxaropenik ez dutenak bezala bizi")
  - e) "Globalizazioa, ekosistema orokorra eta dituen arazoak". ("... eta Edengo lorategian jarri zuen zaindu eta lantzeko ardura emanetz")
  - f) "Globalizazioa, orokortasuna, berezitasuna eta banakotasuna" (Jainkoak gizarte osoari dion maitasuna Jesusengan agertu da; "nork bere hizkuntzan").
- Gai bakoitzerako lan-metodologia:
  - a) Lehen eta behin errealitatea, egoera, gertatzen ari dena, arazoak begiratu. Hurrengo aztertu eta diagnosis egin (gogoeta aukeratutako azpi-gaira mugatuz).
  - b) Sinesmenaren ikuspegiz begiratu: irakurketa sinesmenaren ikuspegiz egin edota sinesmenaren aldeko balorazioa edo iritzia ezarri.
  - c) Azkenik bilatu jarduera irizpide edo linea batzuk.
- Talde bakoitzak eginiko lanaren laburpena gertatuko du idatziz, eta bozeramalea izendatuko du, unea heltzen denean, guztien aurrean kontalari zeregina eginez aurkez dezan.

### **ELKARTZE-BILERAREN ANTOLAKETA**

- Lehen eta behin, horretarako data ezarri behar da.
- Gure proposamena egun batekoa izatea eta gehien jota arratsaldeko 5ak edo 6ak aldera bukatzea da.
- Honelako gai-ordena izango luke:

a) Taldekako bilera, kideak elkarren artean tartekatuta, elkarren arteko komunikazioa bideratu eta elkarte bakoitzaren lana (elkartea eta kideak), eragozpenak etab. ezagutzera emateko. Bien bitartean bozemaileak ere elkartu egingo dira azpi-gai bera aztertu duten taldeen lana bateratu eta sintesia egiteko.

- b) Osozko bilera, elkarteek azpi-gai ezberdinetan eginiko lanaren emaitzak aurkezteko.
- c) Sor daitezkeen eskariak eta galderak.
- d) Eukaristia (E.A.E.koak prestatuko dute).
- e) Bazkaria eta bazkalondoa.

*Las Comunidades de Navarra nos presentan este esquema para preparar nuestro encuentro, a celebrar previsiblemente en Egino, antes del verano.*

## **PROPUESTA DE TRABAJO PARA EL ENCUENTRO DE COMUNIDADES DE EUSKAL HERRIA**

TEMA:

**"Interpelaciones y desafíos de la globalización a la vida cristiana y a la evangelización".**

PLAN DE TRABAJO PREPARATORIO PARA EL ENCUENTRO:

- Proponemos un desarrollo del tema en varios subtemas posibles.
- Cada comunidad elegirá y se centrará en un subtema (al que dedicará el tiempo que juzgue conveniente, teniendo en cuenta que, probablemente, las diversas comunidades tienen ya fijado su propio plan para este curso)
- Los subtemas podrían ser los siguientes:
  - a) "La globalización, lo absoluto del mercado neoliberal y la 'ultimidad' de Dios" ("No tendréis otro Dios más que a mí", "No podéis servir a dos señores").
  - b) "Globalización, pobreza y exclusión y vocación a la fraternidad" ("¿Qué has hecho de tu hermano?", "Lo que hicisteis con uno de estos mis hermanos").
  - c) "Globalización, cultura de consumo, de diversión, de satisfacción inmediata, y pérdida de sentido. Escisión entre la razón científico-técnica y la razón antropológica, ética, simbólica" ("¿De qué le sirve a uno ganar todo el mundo si pierde su vida?").
  - d) "La globalización y 'el fin de la historia' ante el reto de la libertad y de nuestra condición de sujetos" ("Enseñad la tierra", "No viváis como los hombres sin esperanza").
  - e) "La universalidad, y singularidad y particularidad" (El amor de Dios a toda la humanidad se ha manifestado globalización, el ecosistema global y sus problemas" ("... y lo puso en el parque de Edén para que lo cuidase y cultivase").
  - f) "Globalización, en Jesús; "cada cual en su propia lengua").
- Metodología de trabajo para cada subtema:
  - a) Ver la realidad, la situación, lo que pasa, los problemas. Analizarlos y diagnosticarlos (procurando ceñirse al subtema elegido).
  - b) Proyectar una mirada de fe: Hacer una lectura desde la fe, o elaborar una valoración o juicio de fe.
  - c) Perfilar algunos criterios y líneas de actuación.
- Cada grupo preparará por escrito una síntesis del trabajo realizado y designará un portavoz que, en su momento, será el encargado de ponerlo en común haciendo de relator.

REALIZACION DEL ENCUENTRO:

- Ante todo, hay que fijar fecha para el mismo.
- Nuestra propuesta es que sea de un día y que termine no más tarde de las 5 ó 6 de la tarde.
- Con el siguiente orden del día:

- a) Reunión por grupos entreverados con el objetivo de comunicarse y conocer lo que cada comunidad va haciendo y en qué está trabajando, (la comunidad y sus miembros). Dificultades, etc. Entre tanto, los portavoces deberán reunirse aparte para integrar el trabajo de los grupos coincidentes en un mismo tema y hacer la síntesis.
- b) Plenario con el resultado del trabajo de las Comunidades en los distintos subtemas.
- c) Ruegos y preguntas que pueda haber.
- d) Eucaristía (Que la preparen los de la CAV).
- e) Comida y sobremesa.

### ***E.H.K.E.H.EN KOORDINAKUNDEA. ( Akta, 2002-1-12)***

PARTAIDEAK: Kepa, Félix Placer, Balentxi, Joxe, Mikel, Ciriaco, Amparo.

Gaiak:

1.Documento de las CCP de E.H. a la Iglesia de E.H.

Como se había quedado en la anterior coordinadora , el documento enriquecido con nuevas aportaciones y estructurado se envió a los miembros de la coordinadora, pero incompleto pues faltaban las propuestas operativas que figuraban al final. Una vez aclarado el problema , se decide enviarlo completo a los obispos y párrocos con la dirección de un responsable de cada provincia.

En Gipuzkoa ya habían empezado a repartirlo en Navidades , en Vizcaya lo enviarán también a los consejos parroquiales, porque están obligados a dar información de todo lo que reciben. Gipuzkoa será la encargada también de que se publique en la prensa y en la radio.

2. Documento interno sobre el mismo tema para ser estudiado en las comunidades de base.

En el grupo de Laudio se han discutido las propuestas: la primera –elaboración de una lista con todos los presos de la parroquia- parece inviable, no sólo por la dificultad sino también por el derecho a la intimidad de cada persona, pues hay presos y familias que no desean que su nombre figure en ninguna lista. La segunda- organización de un día del preso en la parroquia – tendríamos que estructurarlo nosotros para ofrecérsela ya concretada a los párrocos, e implicar en ella a otras personas o grupos de la parroquia, ya que es difícil que un párroco por su cuenta pueda organizar ese día con las connotaciones que tiene. Habría que plantearse si no sería más factible organizar de forma sencilla para que lo pueda asumir más gente un día nacional del preso.

3. Celebración de Aranzazu.

Uniéndolo con el punto anterior se podría replantear la celebración de Aranzazu que se está haciendo demasiado repetitiva y menos numerosa en cuanto a participación. Para discutir esta posibilidad y preparar la próxima celebración que será el 17 de marzo, se convoca una reunión para el 7 de febrero a las 7,30 en Alsasua. Se invitará también a Pastoral Penitenciaria, Salaketa y SOS Racismo.

4. Continuación del trabajo de Aralar. Encuentro de CCP de E.H.

Mikel entrega el esquema para la reflexión y la metodología de trabajo elaborado por las comunidades de Navarra. El contenido nos parece muy

adecuado pero el lenguaje utilizado es demasiado complejo para las bases y se presta a diferentes interpretaciones, por lo que Mikel pedirá en la próxima reunión de c.c.p. de Navarra que se redacte con una expresión más sencilla. De todas formas se traduce como está al euskera y se reparte a las bases.

Se insiste en que al prepararlo hay que hacer un esfuerzo para unir cada punto del esquema con la realidad de nuestra vida, para evitar que las reflexiones se queden en un plano puramente teórico.

Como fecha posible se indica el 25 de mayo o 1 de junio, lugar, Egino. Se elaborará un pequeño programa con el orden del día.

5.. Boletín interno para estrechar las relaciones entre las comunidades.

Kepa presenta un modelo que es aceptado por todos. Su realización en el futuro dependerá de la información que aportemos las comunidades.

Sería conveniente contar con un correo electrónico por comunidad.

6. Varios:

-Ciriaco plantea a Navarra la conveniencia de dar una respuesta al Arzobispo Sebastian. Podríamos sumarnos el resto de comunidades de E.H.

-Economía : pendiente para la próxima reunión.

PRÓXIMA REUNIÓN 9-marzo-2002. BUEN PASTOR

1.Presoen egoerari buruz hartutako konpromisuak. " KEH Euskal Elizari" dokumentua. Aurreko bileran geratu ginen bezala, idazki hau zuzendu eta egituratu ondoren, euskeratu zen eta herrialde guztiei bidali zitzairen, baina azken partean proposamen zehatzak falta ziren, eskuetan genituen bi idazkien artean suertatuko nahaste batengatik. Arazoa argituz gero, dokumentu osoa bidaltzea erabaki zen, herrialde bakoitzeko arduradun baten helbidea sartuz, gurekiko harremanak errazteko asmoz.

Gipuzkoan zenbait parroketan banaturik zegoela azaltzen du Balentxik, beraz berari ikusiko dute nola bukatu lana; prentsa eta irratira bidaltzeaz Gipuzkoa ere arduratzen da. Bizkaian, berriz, "Consejos parroquiales" izeneko erakundeetara helaraztea komenigarria izango litzatekeela adierazten dute, jaso dituzten txosten guztien berri ematera behartuta bait daude.

2.Ekintzarako proposamenak (Barruko dokumentua)

Laudioko taldeak proposamenak aztertu ditu eta bi oztopo nagusi aurkitu ditu, lehenengoa, presoen zerrenda burutzea eginezina da bere zailtasunarengatik alde batetik eta , bestetik, pertsona bakoitzak daukan intimitate eskubiderengatik. Bigarren proposamena , parroketan preso egunaren antolaketa, oso interesgarria dela kontutan hartuz, parrokoiei modu zehatz batez eskaintzea komenigarria dela adierazten da, edozein parrokoentzat bere kabuz antolatzea oso zaila delako bere konnotazioarengatik. Beraz geu gara preso eguna egituratu behar dugunok parroketako beste elizkideekin batera. Horrexegatik preso egun nazionala antolatzea ea praktikoagoa izango litzatekeen pentsatu behar dugu, modu errazaz jende gehiago asumitzeko.

3. 20002 urteko Arantzazuko ospakizuna.

Hildo honetatik jarraituz, Arantzazu ospakizuna berritzea beharrezkoa dela adierazten da bi arrazoiengandik: lehenengoa, gero eta jende gutxiago parte hartzen duela eta bigarrena, azken urteotan errepikakorra bihurtzen ari dela. Guzti honi buruz estabaidatzeko eta aurtengo eguna  
-martxoaren 17a izango da- prestatzeko Altsasun, otsailaren 7an, 7.30 etan bilera bat edukiko dugu . SOS Arrazismoa, Salaketa, Pastoral  
Penitenciarria taldeetako kideei deialdia egingo zaie, prestakuntzan parte har dezatela.

4. Aralarreko lanaren jarraipena. EHKEko topaketa.  
Nafartarrek prestatutako lan eskema eta metodologia aurkezten du Mikelek. Edukiarekin guztiz ados gaude baina adierazpena oso zaila iruditzen zaigu oinarrizko taldeetan lantzeko, beraz Mikelek nafartarreko kideei hizuntza errezago erabiliz berridaztea eskatuko die. Dena den, dagoen bezala euskeratuko da eta taldeetan banatuko da. Gai bakoitzari buruzko gogoeta egiterakoan gure bizitzaren errealitatean oinarritzen saiatuko gara, maila teoriko batetan soilik ez geratzeko.  
Antolaketa: topaketa eguna, maiatzaren 25<sup>a</sup> edo ekainaren bata; tokia Egin. Egun honetako programatxoa egitea komenigarria izango da.

5. Elkarteen artean harreman sakonagoak izateko boletinaren proiektua.  
E.H.K.E.ko barruko buletinaren eredu bat aurkezten du Kepak eta onartutzat ematen da.  
Etorkizunean buletina edukitzea gure eskuz dago, komunitate bakoitzak bere informazioa posta elektronikoaren bidez bidali behar dio Kepari.

6..Zenbait gai.  
-Sebastian gotzaiari erantzun bat emateko komenientzia planteiatzen die nafartarreei Ciriakok.  
Beste herrialdeek bere atxikimendua eman dezakete.  
-Hurrengo bileran ekonomiaren gaiak hitz egingo da. Kuotak ordainduko dira.

HURRENGO KOORDINAKUNDEA martxoaren 9an, BETIKO LEKUAN.

## 2. atala: *Koordinakundeen ahotsa*

Balentxik honako mezua bidaltzen digu:

### **REUNION ESTATAL DE COMUNIDADES CRISTIANAS POPULARES en PILAS (Sevilla)**

El lema del encuentro era:

**”DEL SALVESE QUIEN PUEDA A EMPUJAR TODOS EL CARRO”**

Asistieron en representación de Euskadi tres guipuzcoanos y dos vizcaínos. Dentro de este encuentro se hizo un trabajo por grupos o talleres que fueron:

- 1- Fundamentalismo y verdad
- 2- Movimientos alternativos
- 3- Inmigración
- 4- Conflictos y violencia
- 5- África negra

Hubo una única ponencia de Concha Martínez de Aragón sobre como superar la actitud individualista que tenemos por doquier, a base de una globalización de la solidaridad.

Al final dijo:

Otras voces mucho más autorizadas y desde sensibilidades distintas van a reforzar las ideas aquí esbozadas y nos van a alimentar el sueño de lo imposible :

“Yo afirmo que los pobres salvarán el mundo, y que la salvarán sin querer, la salvarán a pesar de ellos mismos, que no pedirán nada a cambio de ello, sencillamente porque no sabrían el precio del servicio, que han prestado” (*G. Bernanos*).

“No estamos en condiciones de detenernos y aguardar a que se aclare el horizonte. Todo lo contrario. Tengo la convicción de que debemos penetrar en la noche y como centinelas permanecer en guardia por aquellos que están solos y sufren el horror ocasionado por este sistema que es mundial y es perverso. Tenemos el deber de resistir, de ser cómplices de la vida en su suciedad y su miseria. Nos debemos un gesto absoluto de confianza en la vida y de compromiso con el Otro” (*Ernesto Sabado*)

“Hubo un tiempo en que yo rechazaba a mi prójimo, si su religión no era como la mía. Ahora mi corazón se ha convertido en el receptáculo de todas las formas: es pradera de las gacelas y claustro de los monjes, templo de los ídolos y Kaaba de peregrinos. Tablas de la ley y Pliegos del Corán.

Porque profeso la religión del amor y voy a donde quiera que vaya su cabalgadura, pues el amor es mi credo y mi fe (IBN arabí, místico sufí murciano del siglo XIII)

“Un viejo rabino preguntó un día a sus discípulos: ¿Quién de vosotros podría decirme como se puede distinguir el momento en el que se va a acabar la noche y empieza el día?

“Yo –respondió enseguida un alumno- diría que es de día cuando al mirar de lejos un animal, se distingue si es una oveja o un perro.

No, le dijo el rabino.

Otro dijo: El comienzo del día podría ser cuando al ver a lo lejos un árbol puede distinguirse si es un melocotonero o una higuera.

Tampoco, dijo el rabino.

Pero entonces, ¿Cuándo puede saberse que la noche termina y el día empieza?

Cuando –respondió el rabino- mirando el rostro de un hombre cualquiera, te das cuenta de que es tu hermano, pues si no somos capaces de hacer esto a cualquier hora del día, es siempre de noche “ (*Midrash*, texto de la tradición judía).



#### **4. atala: Esatekoak**

**1.-** Gerorako utzi gabe, bidali 3 lerrotan, besterik ez ba da, zuen Komunitatearen berri, zuen iritziak eta abar, denon elkar komunikazioa errazteko.

No, dejéis pasar el momento y enviad, en 3 líneas al menos, información sobre la marcha de vuestra Comunidad, comentarios, etc.; esto facilitará la comunicación y el intercambio.

**2.-** *“Preso guztien aldeko ekitaldia” aurten, berriro ere, Arantzazun izango da, martxoaren 17an, goizeko 10etan hasita.* Izango dugu honen berri zehatzagoa.

Nuevamente celebraremos en Arantzazu el encuentro en favor de todos los presos. Será el día 17 de marzo, a las 10 horas. *Tendremos información más detallada.*

**3.-** *Euskaraz zein erdaraz argitaratutako lan-material baten berri*

*Una publicación interesante como guía de trabajo para Comunidades.*

Komunitateetan baliagarri izan daitekeen material baten berri eman nahi dugu. Gasteiz, Donostia eta Bilboko Elizbarrutiko Misiokak “Gogoetarako eta ekintzarako gaiak” izenburupean 5 karpeta aurkezten ditu, 19 gairekin.

*“Elkartasunezko konpromiso eraldatzaile eta misiolarian aurrera egin nahi duten taldeei zuzendua dago. Ebanjelioaren kemenaz eraikitzeke kezkatik sortu da. Mundu zabalean barreiaturiko hainbat esperientzian oinarritzen da”.*

Karpeten tituluak hauexek dira:

**I. Pobrezia eta globalizazioa**

**II. Elizbarruti misiolaria**

**III. Berri ona behartsuen aldetik zabaldu**

**IV. Laikoen protagonismoa**

**V. Herrien eta elizen arteko lankidetzeta**

Lehenengo karpetan lau gai aurkituko ditugu eta 20 agiri:

1.- Globalizazioa eta honen ondorioak

2.- Pobrezia Hirugarren Munduan

3.- Herri behartsuen kultura: nortasunaren harrapakaria

4.- Ekologia, munduko behartsuen duintasuna babesten duen lurraren oihua.

Se está utilizando en algunas Comunidades y se recomienda esta publicación de las Misiones Diocesanas de Gasteiz, Donostia y Bilbao. Se trata de unas carpetas monográficas con documentos y fichas de trabajo en torno a diversos subtemas, que podemos encontrar en euskera o en castellano.

No tengo la edición en castellano, por tanto los títulos son una traducción y quizá no coincidan:

La colección, con 5 carpetas bajo el título general: **Temas para la reflexión y la acción**

Los títulos de cada carpeta: **I. Pobreza y globalización**

**II. Diócesis misionera**

**III. Difundir la Buena nueva a favor de los necesitados**

**IV. El protagonismo de los laicos**

**V. La colaboración entre los pueblos y las iglesias**

Y dentro de la primera carpeta tenemos 4 subtemas y 20 documentos:

1.- La globalización y sus consecuencias

2.- La pobreza en el Tercer Mundo

3.- La cultura de los pueblos pobres: usurpación de su identidad

4.- La ecología, el grito de una tierra que protege la dignidad de los pobres del mundo